

Oiartzun

OIARTZUN EZAGUTZEN



Egileak:

Super NIGA-k

LH5



Ikastolen Elkartea

Oiartzun gozatu

CHISPY



Egun zoragarria pasa nahi duzu?
Zatoz Oiartzunera!

Â¡Ven y disfruta de una
experiencia inolvidable en
Oiartzun!

Have fun in Oiartzun!

Â

Aurkezpena

Kaixo, ni Chispy
naiz.Â Erronkei aurre
egitea gustatzen
zait.Â Jakinmin
handikoaÂ naiz eta
lekuakÂ ezagutzea
Â gustatzen zait. Nahi
al duzue egun zoragarri
bat pasa gure herrian?

Presentación

Hola, amigos! Soy
Chispy. Soy un donuts
turquesa con chispitas
de colores. Soy muy
curiosa porque me gusta
descubrir sitios nuevos
y disfrutar de ellos y
todas las comidas
deliciosas que hay en
ese sitio.

Oiartzun begirada batean

Kokapena

Gure herria, Oiartzun Gipuzkoako ipar ekialdean kokatuta dago, ipar isurialdean. Oiartzunek Irun, Lezo, Errenteria, Arano, Goizueta eta Lesaka ditu mugakide.

Erliebe-elementuak

Oiartzunen, erliebe elementu asko daude: Aiako Harria, Arditurri, Oiartzun ibaia, Pikoketa, Oianleku, Urkabe, Aldura, Arkale, Sorondo...

Bestelako informazioa

Oiartzunen ere badaude pertsona famatuak: Alaia Martin, bertsolaria; Xabier Lete, idazlea eta abeslaria; Alaitz eta Maider, abeslariak eta abar. Ospakizunetan aipagarriak dira Ihoteak. Inauterien aurreko astebukaeran ospatzen dira. Ihotetako pertsonaiak Intxisuak, sorginak, basandreak, otegizona, zomorrotzinko, zomorroa, poxpolinak eta artzaiak dira.

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

OIARTZUN IBAIA




Oiartzun ibaia Oiartzun, Errenteria, Lezo eta Pasaiko herriak zeharkatzen ditu 16 km-ko ibilbide bat eginaz. Oiartzun Ibaia orain dela 380 miloi bat urte hasi zen eratzen.

Oiartzun Ibaian ahal zara bainatu, oso berdetsua da eta bertako harriek forma askotako irudiak dituzte. Inguruan zuhaitz ugari ditu. Zure umekin joan eta bainatu zintezke.

ONDO PASA OIARTZUN IBAIAN !

ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

MENDIBILGO TXARA



Mendibilko Txara Oiartzunen kokatuta dago, Ugaldetxo auzoan.

Hurrekin joateko oso leku gomendagarria da. Bideak daude patinetan ibiltzeko, korri egiteko... Errekan bainatu zintezkete edo jolasten ibili, bertako errokodromoan eskalatu...

Mendibilko txaran landare pila bat daude, adibidez: belarra, bitxiloreak, intxaurrondoak, kainaberak, ezkia, gorostia...

ONDO PASA MENDIBILKO TXARAN ! Â Â Â Â Â Â Â Â

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

MANUEL LEKUONA LIBURUTEGIA



Manuel Lekuona biblioteka, Oiartzungo udal liburutegia da. Elizalde auzoan dago. Urkabe mendiko aldapa jaitsita aurkitzen gara berarekin, edo bestela Done Eztebe elizari goraka jarraituz ere iritsi daiteke.

Liburutegi hau ez da berria, baina ez dakigu zer garaitakoa den. Aspaldikoa dela esan daiteke zeren eta, armarri handiak eta leho txikiak ditu, gainera garai batean erabiltzen zituzten "hondarrezko" harriz egina dago. Nahiz eta gaur egun urdinez margotua topatuko duzuen.

Manuel Lekuona biblioteka oso ikusgarria da. Barrura ere sartu zaitezke ordaindu gabe. Guk gomendatzen dugu barrura ere sartzea eta barrutik ere ikustea. Ikusteko arazorik ez duzue izango zeren eta, normalean, jende gutxi ibiltzen da. Kanpotik ikusi nahi izanez gero ere oso ikusgarri dago, barrukoa bezala.

ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)


BEHEKO PLAZAKO LABADEROA



Beheko Plazako labaderoa izena du eta Elizalde auzoan dago. Garai batean, aspaldi aspaldi, emakumeak bertara joaten ziren arropa garbitzera baina, garbigailuak asmatzearekin, labaderoan arropa garbitzeari utzi zitzaion. Orain labaderoa umeak jolasteko, hitz egiteko... erabiltzen da.

Labaderoko kanpoko paretak Alaia Gaztelumendik apainduak dira. Arropa garbitzen ari diren emakume irudiak agertzen dira bertan. Kanpotik lehio handiak ditu. Ladriloz egina dago eta teilatua dauka. Barrutik "pistina" bat bezala dago, han arropa garbitzen zen garai batean. Azkenik barrukoa ladriloz egina dago.

Zirkuituaren mapa



Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga



Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Abiapuntutik lehen interesgunera joateko, ez da ezer egin behar.

Deskribapena

Manuel Lekuona bibliotekatik abiatuko zara.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Manuel Lekuona bibliotekatik Beheko Plazako labaderora joan behar da.

Deskribapena

Liburutegitik hasi, eta jaitsi Doneztebe plazaraino. Jaitsi Xabale ondoan dagoen aldapa eta, malda bukatzean, Beheko plazako labaderoarekin topo egingo duzu.

Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Beheko Plazako labaderotik Mendibilko txarara joango zara.

Deskribapena

Lehenik eta behin, Haurtzaro ikastolaraino joan. Hortik, eskubira jota, hilerrira eta jarraitu aurrera. Hirugarren bide gurutzean segi aurrera eta ezkerrerantz biratu. Azkenik, kanpoko igerilekuekin topo egitean, erreferentzia puntura iritsiko zara, igerilekuko malda jaitsi eta Mendibilko txararen sarreran egongo zara.

Zirkuituaren deskribapena

Zure zirkuituaren laugarren urratsa



Mendibilko txaratik Oiartzun ibaira joan behar zara.

Deskribapena

Jarraitu aurrera hegoalderuntz. Lehenengo bidegurutzean, eskuinera biratu eta jarraitu aurrera ekialderuntz Oiartzun ibaiarekin topatu arte. Bertan topatuko duzu Oiartzun ibaia.

Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



Oiartzun ibaitik helmugara joateko Elizalde hotela da erreferentzia puntua.

Deskribapena

Oiartzun ibaia utziz, aurrera jarraituko dugu bide bazterretik ekialderuntz Elizalde hotelarekin topo egin arte. Ondoren, aurrera jarraituko dugu Manuel Lekuona biblioteka ikusi arte. Bertan dago helmuga.

Bisitarientzako gomendioak

Ekar ezazu motxila bat.

Ekar ezazu aterkia euria egiten badu.

No eches basura a la calle.

Recoge la caca de tu mascota.

Walk in the pawement.

Bring a camera to take photos.